



Ainhoa Larrañaga

◆ MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Fagor: auto eraketaren higadura

ARIZMENDIARRETAK 1956an ekin zion bere proiektuari. Enpresa kapitalistak nagusi ziren garaian, bere lehen saiakera Union Cerrajeran egin zuen; enpresako ugazabengana jo zuen, langileek enpresako erabakietan ahalmena izatea eskatzeko. Eskerak jaso zuen ezeztaren aurrean, hartu zuen auto eraketarako bidea. Gizarte auto eratuago bat lortzea helburu zuen proiektu berriari, ilusioz eta indarrez ekin zioten On Jose Mariak sortutako Arrasateko Eskola Politeknikoko bost ikaslek: Usatorrek, Larrañagak, Gorroñogoitiak, Ormaetxeak eta Ortuibaik.

Horretarako lehen harria izan zen ULGOR; egun oraindik ere askori entzungo diogu, Fagor Etxetresnak kooperatibari, ULGOR deitzen. Barrura begira, enpresa demokratikoa lortu nahi zuen Arizmendiarretak, bere hitzetan, langileen adin nagusitasuna lortu behar zen. Bazkideak izan behar zuen kontziente eta erantzule, proiektu kooperatiboak eskatzen zuen erabakiekiko. Eta kanpora begira, justizia soziala lortzeko gizarte eraldaketa zuen ipar. Auto eraketaren potentziala, norbere ahalmenetik abiatuz, beharrak detektatu eta hauei erantzuna ematean zetzan. Lortu zuen bere helburua eta horri esker ditugu Arizmendi ikastola, Mondragon Unibertsitatea, Lagun Aro, Eroski, Euskadiko Kutxa... gizarte auto eratu propioa.

Baina, krisi globalak Fagorreko krisia agerian utzi du. Hamaika ahulezia. Begiratu desberdinetatik egin genezake gertatutakoaren azterketa, baina bazkide izaeran ikusi dudana ahuleziari erreparatu

nahi diot. Bazkideek agerraldietarako izan duten bulkada zaila da ulertzen, ez baita jokabide kooperatiboarekin uztartzen erraza.

Bazkideak urrundu dira erabaki guneetatik; boterearen demokratizazioa ez da ondo kudeatu. Pentsa daiteke, tentsioa galdu dutela eta euren ardura maila delegatu egin dutela. Ez zaie utzi euren erabaki ahalmena kudeatzen ala ez dute nahi izan. Batzuek ez dutelako informazioa eta erabaki ahalmena sozializatu, edo, besteek hartu nahi izan ez dutelako. Tekno-egitura eta sozio-egituraren arteko lehian, lehena atera da irabazle, arrazoiak arrazoi.

*Bazkideak urrundu
dira erabaki
guneetatik; boterearen
demokratizazioa ez
da ondo kudeatu*

Fagorreko bazkideek zein gainerako kooperatibistok, kooperatibismoak eskatzen duen exijentzian sakontzeko erantzukizuna daukagu. Horretarako, ardura postuetatik, gainerako bazkideekiko komunikazioa zaindu beharra dago. Eta bazkideok geure ardura berrartu beharra daukagu, nerabegarotik, Arizmendiarretak eskatzen zuen adin nagusitasuna berriro iritsi arte. Fagorrek izan behar du irakasgai, kooperatibismoaren muinera itzultzeko eta auto eraketak exijitzen duen ardura berrartzeko. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK Erreferendumei jarriak



XDZ

Beñat Gaztelumendi Aranoa

◆

Doinua: Agur sagar beltzaran.

Herri bat noiz elkartu
eta noiz ebaki
galdetu behar zaio
han bizi den bati
galdetzea lehenengo
pausua izaki
zer behar den galdetzen
duenak badaki:
herritarrek hitz egin
eta erabaki.

Nahiz batzuentzat izan
min bat eratzea
Donostiatik irten
edo geratzea
beren eskubidea
da aukeratzea;
demokrata batentzat
zer da eskatzea
Igeldok nahi duena
errespetatzea?

Eskozian datorren
erreferenduma
edo Katalunian
aurkeztu zaiguna
iruditzen bazaizu
bidexka iluna
zer da arazo gisa
sentitzen duzuna:
galdera egitea
edo erantzuna? ■

